

# UDA, JAIK ETA BESTE KONTU BATZUK

## EGOKIAK?

Uda, atsedentaldia, opon-ak. Ondartza, mendia, bi-daiak, leku eta jende barria ezagutzea. Berba batean esanda, zoramena.

Jendea nonai, ondartzak beteta, dana izerdia eta beroa (bear dan moduko eguraldia izan ezker, bestelakorik ere badaki egiten eta).

Eta udeagaz batera jaiak.

Baina aspaldion ikusten doguzanei jaiak deitzekorik badago?

Ez nire ustez, eta gainera zalantza barik diñot! Parte artzearen izenean eta kulturaren izenean itzelezko astokeriak egin direla uste dot. Ezin dot esan leku guztietan bardin gertatzen diranik baina toki gitxi batzuetan izan ezik jaiak poztasuna eta alaitasun euki bean-ean ezaugan-itzat, edaria eta beste gauza batzuk daukez.

Alan eta guztiz ere badira leku batzuk ere (gitxi, eta gitxi direnez, badakizu, salbuespenak legea baieztatzen dau) ez dabenak jasan "ban-iztasunaren" eragina, naiz eta aurkitzeko sakon eta zabal arakatu bear dan Euskalerriko mapan.

\* \* \*

## ESKATZEN DANA EMON?

Zer da ikusten dana en-ietako jaietan?.

Ekonomi lege batek eskariak eskeintza sortzen daua esaten dau. Zer eskatu axe emon!. Orixe da jartzen dan atxakia. Gazteriak zera eskatzen dauanez, berbera emon bear. Alkohola gura dauala, txoznak jan-i; gau-pasa egin gura dauala, musika gaba guztirakoa (naiz eta on-ela erri guztiak egin bear izango dauan gau-pasa, ez da egongo lo egingo dauanik musikak dirauan artean ezta gero ere, aun-ekoak "musikariak" sortzen bait dauz; rock-a edo antzekoren bat nai dauala, talderik zaratatsuen ekan-i.

Badirudi zenbat eta zaratatsua izan ohea dala, eta ez daukat ezer gaur eguneko musikaren kontra, danatarikoa dago-eta, bai ona eta bai txarra, sasoi guztietan gertatu dan bezela, baina ezin da bolumena on-enbeste altxatu barik entzun?.

Guraso batzuk euren semeekin jokatzen daben modura jokatzen dogula uste dot, negan-ik ez daien egin eskatzen daben guztia emon seme-alabei! Baina ori ete da semeak ezitzea?

## ZER ESKIÑI?

Ekonomi legeekaz jarraiturik badago beste bat eskeintzak eskaria sortzen dauala esaten dauana. Zeozer emoten badozu, on-enganako zaletasuna sortu daikezu.

Eziketan ere orixe egiten da, gaztetxoei eskeini (ikas-tera beartu?) egiten jake. Batzurenagan zaletasuna sortzen da, baina beste batzurenagan amon-ua, bere an-iskuak ere badagoz-eta.

Eta zer da gazteei eskeintzen jakena? Zelango gazteria gura dogu? "Alaia eta burrukalaria"? "Jaiak bai eta bun-uka ere bai" esaten dauana?.

Zeren alde jakin barik ere burruka egiten dauana?

Urte batzuk direla politika eta jaiak oso lotuta doaz: Amnistia dala, presoak Euskalen-ira dala, andiko ikun-ik ez eta emengoa bai, "txapel oken-ak" kanpora eta txapel artezei an-ika (an-ika bakan-ik balitz!), azken batean "gora gu eta gutarrak, eta gainera nagusi edo mustun-ak ausi" dala jaietako oi u nagusia esan geinke.

Gazteen odola berotzea ez da bat ere gatxa izaten, eta on-etarako alkohola laguntzaile ona da.

\* \* \*

## GAZTEAI TA ELDUAI

Baina gazteentzat dira bakan-ik jaiak? Zer eskeintzen jake sasoikoei?.

Batez ere jai orreek udalarien en-ietakoak badira, Gorkiz, Bakio, Plentzia, Lekeitio,... Zer egoten da urte guztian baserrian edo itxasoak "ebagitzen" lan egiten dagozanentzat?

Konturatu zara, irakurle, zenbat sasoiko jende egoten dan jaiak ospatzen diren gunetan?.

Nik beintzat ez dot askorik ikusten, ete ez dot uste edadea dala eta ez daukenik jaietarako gogorik. Ez ete da aspertu egiten direla eskeintzen jakenagaz?.

Ez dot uste eskeintzak gogoko dabezenik, eta ez gizon-emakumeok ez dakielako zer dan alaitasuna eta "juerga". Eurak ere gazteak izan dira, alaiak eta burrukalariak (benetako bun-ukan bizia galtzeko arriskuan askotan jan-itakoak), presoen alde barik preso egonda-koak, andiko ikurriñaren menpetik urtetzeko emengoa lekurik gatxenetan eta sasorik gogon-enetan jan-i dabe, Euskal En-ia askatu-gurean euren gaztetasuna emon dabe. Eta ez dabe eurentzat ere zeozer egon daiten esku-biderik?

Enrike Itxasalde